

Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1996ko urtarrilaren 26a

*

Ximenez de Radak 150 urte

Gurutze Plazako Institutuak 150 urte bete zituen joan den urteko azaroan. Bertako arduradunek urteurrena ospatzeko antolatu dituzten ekitaldiak, hala ere, datozen hilabeteetan zehar luzatuko dira oraindik. 1845.

urteko azaroan, lehenengo gerra karlista amaitutakoan liberalek sorturik jaio zen orduan Bigarren Hezkuntzako Institutu Ofiziala zena. Nafarroako lehenengo institutua izan zen eta benetako astindua eman zion garai hartako gizarteari. Gauza bera gertatu zen 1910. urtean lehen emakumeak bertan

ikastea erabaki zuenean. Izan ere, garai hartako gizarteak ez zuen begi onez ikusten neskek mutilekin batera ikastea. Isabel Romerok irekitako bidea, ordea, beste hamaika emakumek jarraitu zuen haren atzetik, batez ere bigarren errepublikaren garaian. Neska-mutilek elkarrekin ikasi zuten 1939. urtean banatu zituzten arte. Eta halaxe jarraitu behar izan zuten harik eta 1984. urtean heziketa mistoa berriro ezarri zuten arte.

Ikusten denez, hamaika gora-behera bizi izan ditu egungo Gurutze Plazako Institutuak 150 urteko historia luzean. Hainbeste urtetako tradizioak, gainera, gaur egungo institutuan ere badu eraginik, Guillermo Herrero zuzendariak azaldu digunez. «Gure historia luzea dela eta, tradizionalistatzat eta kontserbadoretzat jotzen gaituzte askotan kanpotik, baina hori erdizka baino ez da egia», dio Guillermo Herrerok.



Azterketak

Xoko ttikia

ESTITXU FERNANDEZ



Azterketak! Fakultateko liburutegiak ikaslez gainezka daude, orain arte usaitu ez ditugun apunteak buruan nola edo hala sartu nahian. Etxetik fakultatera eta fakultatetik etxera.

Felpudo maldito hagitz ongi dagoe-la? Ba, bai, baina espetu beharko du. Klaseko afaria dugula? Baina zer garaia! Inauterietako jantziak pres-tatu behar ditudala? Bezperan izan beharko du, urtero bezala. Kafe bat hartzera ateratzeko, gero arratsean ikasi bertzerik ez egiteko bada ere? Kafe nahikoa daukat etxeko termoan, eskerrik asko. Segundu bat bera ere ez, paperetatik at; segundu bat bera ere ez, ikasketa prozesua

ez den orotaz pentsatzeko. Egunak jasanezinak, arratsak motzegiak. Mundutik erabat deskonektaturik, egunkariaren azala bakarrik begiztatuz, begizuloak kokotzeraino aile-gatzen zaizkigula.

Gehiegikeritan erori naizela? Agian bai, seguruenik bai, bai, egia da. Aunitzek etxean pasatzen dute ebaluaketa garaian denborarik gehien, baina ez horregatik paperetatik at dagoen mundua bazterrean utzita. Goizeko hamarretan jartzen dute iratzargailua hamaiketan ernatzeko; ongi gosaldu, egunkaria irakurri eta hamabietan hasten dira ikasten. Gelan bakarrik, apunteak aurrean di-

tuztela, bortz minutu aulkian jarrita egon eta gero, sukalderako bidea hartzen dute armairuak miatzeko. Txokolatea izan da kasu honetan armairutik ahora esandakoa eta berriz gelara ikastera; eta berriz sukaldera zerbait pikatzera; eta berriz gelara; eta...

Azterketa garaia guztiok urduri jartzen gaitu; egia da. baina denetik dago; batere ikasten ez duenik ere badago, etxean eta fakultatean ez bertze toki guztietan egonez. Hala ere, ikasten jarriz gero denbora motz gelditzen zaigu denoi. Ikasle presoei ezik, noski, munduko denbora guztia baitute. x

GURE AUKERAK

KONTZERTUAK

Iruñea: Pablo Sarasate Kontserbatorioko auditorioan Pablo Sarasate Orkestrak kontzertua eskainiko du gaur. XX. mendeko musika emanaldia arratsaldeko zortzietan izanen da.

Gares: Fundamental aretoan festa afrikarra dago gaur gaueko 22.30etan.

ZINEMA

Iruñea: Olite zinemetan beldurrezko zinema zikloaren barruan, datorren asteartean, urtarrilak 30, Porco Rosso pelikula eskainiko dute. Emanaldia arratsaldeko zortzietan izanen da, eta sarrera 250 pezetan izanen da.

ERAKUSKETAK

Zizur Nagusia: Kultur Etxean Eduardo Armañanzas margolariak gaur arratsaldeko 19.30etan irekiko du bere pintura erakusketa; eta otsailaren 11 bitartean izango da zabalik. Lanegunetan 19.00etatik 20.30etara, eta jaiegunetan 12.30etatik 14.00etara.

Iruñea: Maisonnave hotelean, Ines Zudaireren lanak daude ikusgai otsailaren 8a bitartean.

BERTSO SAIOA

Leitza: Inauteriak aitzakiaz hartuz, Jon Sarasua, Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertsoetan ariko dira herriko zineman. Ekitaldia arratsaldeko 19.00etan izanen da igande honetan.

MENDI IBILALDIAK

Iruñea: Nafarroako Kirol Elkarteak mendi irteera antolatu du iganderako. Parthartzaleak Belaguatik Binbalet mendira igoko dira. Informazio gehiago nahi duenak elkarteak Jarauta kaleko 78an duen egoitzara jo dezake, edo 22 43 24/22 98 20 telefonoetara deitu.

Iruñea: Nafarroako Goi Mendiko Eskolak Iratira ibilaldia antolatu du igande honetan. Parthartzaleak Orbaiztatik aterako dira, eta Irabiako urtegiaren bukatuko dute ibilaldia. Informazio gehiago nahi duenak 10 78 48 telefonora dei dezake.

BESTELAKOAK

Bera: Herriko Elkari-aren taillerak antolatuta, mintzaldia izango da gaur iluntzeko 20.00etan Gure Txokoa elkartean. Hizlaria, Bittor Aierdi, Elkari-k Nafarroan duen bozemailea, izanen da, eta landuko duen gaia, Gatazka eta biolentzia: argudioak eta proposamenak.

Iruñea: Nafarroako Kirol Elkarteak Jarauta kaleko 78. zenbakian duen egoitzan diapositiba emanaldia antolatu du gaur. Txuma Ruiz eta Fermin Izkok Trango hormetan eginko bi eskaladen berri emanen dute arratsaldeko 20.00etan.

nafar kronika

Gaizka Aranguren

ABC, CDN, ETA. Letra zopa

Duela zenbait egun Espainiako Abc egunkari monarkiko eta eskuinza-leak, CDN nafar alderdi berria eta ETA biltzen zituen albiste interesgarria eman zuten argitaratu. Abc-ren arabera, ETako aparatatu politikoak egin-

dako txosten batean, CDNri eta bereziki Juan Cruz Alliri buruzko hausnarketa ageritzen. Ustezko txosten horretan, ETak interesgarritzat jotzen zituen CDN fenomeno eta Juan Cruz Alliren jorkaera. Abc-k zioenez, Mikel Antzak idatzia zen testua, eta bertan erakunde armatuak ia itxaropenez zekusan Allik izan dezakeen bilakaera politikoa eta CDNk joka dezakeen papeara nafar gizar-tean eta instituzioetan.

Guzti honek bi ondorio azpimarragarri izan ditzake: lehenik eta behin, berriro ere, Abc-k ETArean izaera politikoa agerian paratu duela. Gogora ekarri digu ETak aparatatu politikoa baduela, bertez alderdiek egin ohi duten bezala egoeraren azterketa politikoa egin duela eta gainontzeko indar politikoei buruzko hausnarketak papelean ezartzen dituela. Beraz, «mafia koldar odolzalea» izateaz gain bertez ezer bada Abc-ren arabera.

Baina bigarren ondorio ikusgarria ere ba-

dago. Antzarena omen den hausnarketa hau entzuna dugu, eta ez, hain zuzen ere, ezker abertzalearen ahotsetik. Nafarroa Garaiko Parlamenturako azken hauteskundeetan karpainan, Alliren inguruan edo Allirendako lanean aritu zen kazetari jeltzale batek bota

zuen lehen aldikotz orain Abc-k ETArean ahotan jarri duena. Eugenio Ibarzabalek, oraindik bere osotasunean argitzeke dagoen lanen bat egin zuen Nafarroan garai hartan CDN-Allirendako. Lan hura amaitu zenbait gauza interesgarri erran zuen, eta errandakoen artean soma zitekeen Allik edota CDNk etorkizunean izan zezaketen bilakaera politikoa. Eta bilakaera hori, hara orain ETArean ustezko testuari egotzen

zaion «itxaropen» horren usaina zuen. Alta, Abc-ren helburu nagusia, CDN eta ETA siglak elkarren ondoan jartzea izan da. Horretan zalantzarik ez. Eta bide batez, ETAREN testuren batek CDNren ustezko bilakaerari «ateren bat irekita» uzten badio, horixe erabili Allik ETArekiko jarrera guztiz malguta duela adierazteko. Hauteskundeak hortxe daude eta Abc-k salatu behar du PP-UPNk hirugarren eskainia galez dezan CDNren mesedetan.

ETA elogia al partido de Juan Cruz Alli al considerar que ha favorecido a la izquierda «abertzale» en Navarra. Documentos internos de los etarras subrayan que el CDN choca con el proyecto de España. El boletín «Zutabe» valora que el vicepresidente navarro apoye el diálogo con la banda y a los presos.

La banda terrorista ETA valora positivamente la apertura del partido político Convergencia de Demócratas Navarros (CDN), cuyo líder es Juan Cruz Alli, ya que admite que «las relaciones entre Euzkadi y España son prioritarias y porque respalda el diálogo y el diálogo que choca con el duro proyecto de España...».

«Para de un modo u otro está claro que la izquierda ha estado en Navarra y que eso cambia el enfoque a la izquierda abertzale un campo más amplio de trabajo», asegura la portavoz etarra. «No pueden decir que de ninguna manera el CDN sea un partido abertzale, ni sí, ni no, ni el proyecto de este partido, pero como el de UPN y el del PSOE es "Euzkadi", el partido de Juan Cruz Alli y el de Euzkadi, que es el proyecto de España».

«El líder de la izquierda, según fuentes abertzales, es Juan Cruz Alli, que es el líder de la izquierda abertzale, pero el líder de la izquierda abertzale es Juan Cruz Alli, que es el líder de la izquierda abertzale, pero el líder de la izquierda abertzale es Juan Cruz Alli».

«El hecho de que el partido de Juan Cruz Alli sea un partido abertzale, no es un problema, pero el hecho de que el partido de Juan Cruz Alli sea un partido abertzale, no es un problema, pero el hecho de que el partido de Juan Cruz Alli sea un partido abertzale, no es un problema».

«El hecho de que el partido de Juan Cruz Alli sea un partido abertzale, no es un problema, pero el hecho de que el partido de Juan Cruz Alli sea un partido abertzale, no es un problema».

asteko pertsonaiak



Aitana Sanchez-Gijon Aktorea

Aitana Sanchez-Gijon aktorea Iruñean izan zen asteartean eta asteazkenean. Aitanak 'La gata sobre el tejado de zinc' lana antzeztu zuen Toni Canto aktorearekin batera Gaiarre antzokian. 'La gata sobre el tejado de zinc' obraren protagonistak oraingoz zinema utzi du eta antzerkira bueltatu da. Iruñean aurkeztutako Tennessee Williamsen antzezlanak baina gogorragoa da eta ez hain goxatua, hura Williamsen bigarren bertsioa izan baitzen. Aktore espainiarrak aipatu lanarekin arrakasta handia lortu du Hegoaldeko beste eszenatokiak eta Nafarroan ere ez zen gutxiagorako izan, sarrera guztiak salgai jarri ziren lehenengo egunean agortu baitziren.



Xabier Kintana Euskaltzaina

Xabier Kintana euskaltzainak izan du euskaraz argitaratu zen lehen liburua faksimile edizioan eta beste bost hizkuntzatan kaleratzeko ideia, eta berari egokitu zaio koordinazio lana ere. Kintanak liburuaren finantzazaleekin batera aste honetan aurkeztu zuen Iruñean faksimilea, egilea nafarra zelako, Donibane-Garazikoa hain zuzen ere. Bernard Etxepareren Linguae Vasconum Primitiae euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez, alemanieraz, ingelesez eta italieraz irakurri ahal izanen da Kintanaren ekimenari esker. Euskaltzainak beste lan asko ere egin izan ditu euskararen arloan, eta azken honekin Etxepareren nahia bete nahi izan dute berak nahiz eginkizunean lagundu dioten beste guztiak.

ahaztu gabe!



INAUTERIAK

Leitza: Asteburuan eta astelehenean eta asteartean inauteriak ospatuko dira Leitza ere. Zubietan eta Iturengoan ospea eta fama ez duten arren, giro polita izaten da. Bihar Leitzaiko intsumisoen taldeak antolatuta, arratsaldeko 18.00etan, intsumisoen parodia egingo dute Guardia Zibilaren kuartelaren aurrean. Ondoren, 21.30etan herriko eskolan afaria egingen da. Afarirako txartelak 1.600 pezetan daude salgai Gaztañaga eta Torre tabernetan. Egun berean, gaurdian, Anestesia taldeak kontzertua eskainiko du Torre tabernan.

Igandean, herrien arteko pilota partidua jokatu da. Aurrera kirol elkarteak antolatuta Leitza eta Azpeitiko pilotariak ariko dira norgehiagokan 11.00etan. Arratsaldeko 19.00etan bertso saioa izanen da zineman eta ondoren Torreean bertso afaria egingen da. Sagu eta Sator herriko trikitilari famatuak ere alaituko dituzte inauteriak gaueko 12.00etan Gaztañaga tabernan joko baituzte beren abesti eta doinu ospetsuak. Bestalde, igandean, astelehenean zein asteartean plazan musika izanen da Aitzakia taldearekin.

adi!

Euskalerria Irratia FM 91,4

Egunero asteleheneetik ostiralera, Zokobetailu goizeko 10.00etatik 11.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara Karakola segi hola gazteendako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarrizketak.

Karrape Irratia FM 107,8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara Gauza guztien gainetik, edertasuna eta osasuna, sukaldaritzak, ohiturak.

Iruñea

Balentin Artetaren oroimenez

Zendu berria den apezaren oroimenez meza emango da bihar Jesuiten Elizan

Aita Artetak kultur ar-
lo ezberdinak jorratu
izan zituen, eta Belgika eta
Venezuelako egonaldiek
irekitasun handia eman
ziotela ere esan liteke. Iru-
ñean jaioa, gazte sartu zen
Jesusen Lagundian eta
Euskal Herria, Nafarroatik
hasita, bihotz-bihotzean
izan zuen beti. Duela hila-
bete hil zen istripuz, 80 urte
zituela.

Xabier Irigaray / Iruñea

BIHAR larunbata, arratsaldeko
18.45etan eta Jesuiten Elizan
Aita Artetaren oroimenez meza
bat emango da. 80 urteko apez
jesuita hau ustekabean joan zi-
tzaigun orain dela hilabete, istri-
pu baten ondorioz.

Eta nor dugu Balentin Arteta?
Kultura munduko pertsona zela
esan behar dugu lehenbizi —ka-
zetaria, margolaria, historiaren
ikertzailea, batez ere Nafarroako
euskal munduan, erlijio gauze-
tan irekia...—. Iruñean jaioa,
gazte sartu zen Jesusen Lagun-

dian, lehenengo ikasketak Belgi-
kan egin zituelarik. Gero Vene-
zuelara joan eta bertan irakaste
bezala urte batzuk pasa zituen.


Belgikan eta Venezuelan ego-
teak irekitasun handia eman zion
bere biziri eta 80 urteak arte,
urtero joaten zen Parisera eta
Belgikako Flandriara, uda asko-
tan Pariseko Montmatren mar-
gotzen ere ikusten genuelarik.

Artetaren pentsamendu ire-
kiak berezitasun nabarmena
ematen zion euskal kultura eta
euskal munduari. Euskal Herria,
Nafarroatik hasita, bihotz-biho-
tzean zeukan. Hori argi agertzen
da egin zituen hainbeste idazkie-
tan, *Deia* egunkarian.

Berandu ikasi zuen euskaraz,
baina ahal zuenero euskarari
eusten zion, astero euskal meza
emanez. Eusko Ikaskuntzako ki-
dea izan zen eta erakunde honen
argitalpen eta ekintzei garrantzi
handia ematen zien. Aipatzekoa
da zein gogo handiz joaten zen
Baigorriara, Nafarroako egunean,
edo Nafarroa Oinezera.

Punto y hora de Euskalerría
aldizkaria hasi zenetik hor aritu
zen artxibo lanei ekinez.

Apez zintzo eta euskaldun ja-
torra, zure oroimena, Balentin,
guregan izanen da beti! X



Balentin Arteta.
EGUNKARIA

Zubieta

Hemen dira inauteriak

■ Urtero ohi bezala Zubietan, Iturenen, Sunbillan eta Leitzan ospatuko dituzte asteburu honetan

Erredakzioa / Iruñea

URTERO BEZALA, inauteriak ai-
legatu dira berriro Nafarroako
hainbat herritara. Berriro heldu
zaigu mozerro, dantza, parranda
eta jaiarako garaia. Uitz eta Era-
tsunen jada, joan berri zaigun
asteburuan ospatu zituzten
inauteriak. Bertan bildu ziren
inguruko herrietako lagunak ere,
Nafarroako urteko lehen inaute-
rietan sortzen den giroa gozatu
asmoz.

Uitz eta Eratsunen ondoren,
Sunbilla, Leitza, Zubieta eta Itu-
renen txanda izanen da asteburu
honetan, bertara ere ailegatu
baitira inauteriak. Guztien ar-
tean, Ituren eta Zubietakoak dira
famatuenak eta inguruko herri-
tako lagunekin batera, beste he-
rrialdetako bisitariak ere hurbil-
duko dira bertara aurtan ere.

Ituren eta Zubietan astelehena
eta asteartea badira ere egunik
handienak, bihar eta etzi ere izan-
en da zer ikusi eta zertaz gozatu.
Larunbatean, hain zuzen, giroa
berotzen eta alaitzen hasteko,
bazkari eta afari ugari egingen
dituzte herriko talde ezberdinek.
Igandean, berriz, puska bila ba-
serriz baserri eta etxez etxe ibili-
ko dira herriko gazteak.

Astelehenean, urteroko ohitu-
rari jarraiki, Zubietako joaldu-
nak Iturenera joanen dira eta
bertako kaleetan barrena ibiliko



Iturenera bisita astelehenean egingo dute zubietarrek.

ARTXIBOKOA

dira arratsaldeko ordu bata eta
hirurak bitartean. Asteartean,
berriz, Iturengo zanpantzarrak
joanen dira Zubietara eta kalee-
tako giroa alaituko dute.

Baina erran bezala, Sunbillan

eta Leitzan ere ospatuko dituzte
inauteriak asteburu honetan.
Sunbillako inauteriek, hain zu-
zen, arrakasta izugarria lortu
dute azken urteetan, batez ere
igande goizeko mozerro desfileari

Bera

**Gustu guztietarako
musika emanaldiak
antolatu dituzte
astebururako
eskualde osoan**

■ *Jazza entzungai
izango da bihar
gauean Berako
Kultur Etxean*

Jon Abril / Bera

ERA guztietako musika eman-
aldiak daude antolatuak aste
bukaera honetarako es-
kualde osoan. Gaur bertan,
esaterako, gaueko 20.30eta-
tik aitzina, Etxalarko herriko
ostatuan, pop musikaren
barruan punta-puntan dabi-
len talde bat ariko da. Donos-
tiako Sanchis eta Jocano hain
zuen.

Hala ere, bihar, larunbata,
izango da musika eskaintza-
rik zabalena. Beran, gaueko
23.00etan hasita eta sarrera
doan dela, Berako Kultur
Etxean jazz emanaldia izanen
da.

Bera eta Lesakako hama-
bost gaztek osatu berri duten
Free Spirit Jazz Band-ek joko
du. Errege egunean Lesakan
izandako arrakastaren ostean
dator Berako Kultur Etxera
Free Spirit Jazz Band. Euren
errepertorioan jazz pieza
ezagunak dituzte.

Sunbillan ere izango da mu-
sika amanaldirik, kontuan
hartuta inauteriak ospatzen
dituztela egunotan. Gaur
gauean, Berako Gutariko
bat taldea eta Mexikotik eto-
rritako Igua- na y los Jumiles
igoko dira pilotalekuko esze-
natokira.

Lesakan, berriz, Bittiria
kaleko ostalariak bi hilabeteo-
tarako prestatu duten kultur
egitarauaren barruan, gaur
gaueko 20.30etan Mikel Mar-
kez bakarlariak kontzertua
eskainiko du Atxaspi osta-
tuan.

Otsailaren bukaerara arte,
talde ezagunak eta bertelako
taldeak ariko dira Atxaspin,
tardean Gari —Hertzainak
taldeko kantari ohia— izanen
delarik.

Hilabete pasatxo izango
dugu, beraz, Lesakako Bittiria
kaleko ostalarien kontura
nahi adina gustuko musika
entzuteko. X

esker. Sunbillako Udalak eta he-
rriko Ulibeltzak elkarteak anto-
latzen dute eta jende andana bil-
du du azken inauterietan. Mo-
zerro desfilea egiteaz gain, ardoa
eta intxaurrek ere banatzen di-
tuzte ikusleen artean. Astelehe-
nean, berriz, etxez etxe ibiliko
dira herriko gazteak eskean.

Leitzan ere, gainontzeko he-
rrietan bezala, puska bila ibiliko
dira herriko gazteak. Leitzako
inauterietako ohiturak agintzen
duen legez. Igandean herrian ba-
rrera ibiliko dira eta astelehe-
nean baserriz baserri. Astear-
tean, azkenik, Erasote auzoan
barrena izanen dira eskean. X

HERRIKO OSTATUA

ZUBIETA

ZURE
ATSEDENERAKO
LOQUELAK
DITUQU

ONGI PASA **948 - 45 17 71**
INAUTEAK !! **NAFARROA**

Ximenez de Rada,
historia handiko institutua



Nafarroako zaharrena

Gurutze Plazako Ximenez de Rada institutuak, herrialdeko zaharrenak, 150. urteurrena ospatu du

Edume Elizondo / Iruñea

NAFARROAKO instituturik zaharrena da Gurutze Plazako Ximenez de Rada. Azaroan 150 urte bete zituen baina egun horrek merezitako ekitaldi eta ospakizunak ez dira oraindik bukatu. Joan den ostiralean, hain zuzen, Santiago Segura aktorea izan zen Iruñean, institutuko ikasleen aurrean hitzaldia ematen. Horren aurretik, hala ere, izan dira beste hamaika ekitaldi ere: kartel eta literatur lehiaketak, argazki erakusketa, bazkaria, hitzaldiak eta abar. Ekitaldiak martxoan bitartean izango dira oraindik, eta ekaina edo uztaila aldera Ximenez de Rada institutuaren historia jasotzen duen liburua argitaratuko dute.

Ekitaldi horiek guztiak antolatu ahal izateko urtebete aritu dira lanean ikastetxeko ardura-dun eta langileak. Ikasleek ere erruz hartu dute parte antolatu diren hainbat lehiaketatan, Guillermo Herrero ikastetxeko zuzendariak aipatu digunez. Pozik aipatu ere, «gaurko ikasleek urrun sentitu baitute beti institutuaren ibilbidea». Ez, ordea, zuzendariak eta gainontzeko irakasleek, «historia eta tradizioa beti izan baitugu kontuan». Hori dela eta, kanpotik «trazionalista eta baita kontserbadoretzat jo izan gaituzte beti», dio Ximenez de Radako zuzendariak, «nahiz eta hori erdizka baino ez den egia».

Izan ere, 1845. urtean jaiota, tradizioa ezin zaio ukatu Ximenez de Rada institutuari. Zehazkiago erratearren, 1845eko aza-

Gurutze Plazako Institutua du izena egun. 150 urtetan, ordea, hamaika izen izan ditu 1845. urtean sortu zuten Bigarren Hezkuntzako Institutu Ofizialak. Liberalen semeek ikasten zuten bertan hasieran, eta XX. mendearen hasierarekin emakumeak sartu ziren. Gaur egun, berriz, 1.989 ikasle ari dira Gurutze Plazako Institutuan, Nafarroako zaharrenean.

roaren 17an ikusi zuen argia Bigarren Hezkuntzako Institutu Ofizialak. Hori izan zen institutuak izan zuen lehen izena. Gurutze Plazako Institutua gaurko izena jaso baino lehen beste hamaika izen izan ditu. Estatu osoan urte horretan jaio ziren hamahiru institutuen artean beste bat izan zen Gurutze Plazakoa, Nafarroako lehenengoa.

Liberalak sortutako bigarren hezkuntzako institutua • Lehen gerra karlista amaituta, liberalen garaipenarekin batera sortu zen egungo Gurutze Plazako Institutua Iruñean.

«Liberalak estatu zentralista eta berdintzailea eratu zuten, eta horrekin batera bigarren hezkuntza ertaina izango zena antolatu zuten lehen aldiz», azaldu digu Guillermo Herrero institutuko zuzendari eta historia irakasleak.

Benetako astindua eman zion institutuak garai hartako Iruñeko eta Nafarroa osoko gizarteari. «Liberalen institutua izan zen, eta bertara joatea sintoma ideologikoa zen». Funtzionario, militar, industria-gizon eta merkatarien semeak izan ziren garai hartako Bigarren Hezkuntzako Institutu Ofizialeko ikasleak. «Karlisen semeek, noski, ikastetxe erlijiosoetan ikasten jarraitu zuten».

Guillermo Herrero azaldu digunez, hala ere, «gure institutuan ere erlijioak pisu handia zuen eta garai hartako irakasle anitz ere apezak ziren».

Egungo Gurutze Plazako Institutuak izan zuen eragina ukazina da, eta horren adierazle garbia da 1960. urtera arte ez zela beste instituturik sortu Nafarroa osoan. Garaian garaiko gertakizunek ere izan zuten eraginik institutuaren ibilbidean. 1859. urtean izena aldatu eta

Iruñeko Bigarren Hezkuntzako Institutu izendatu zuten. Urte horretan 137 ikasle zituen institutuak.

XIX. mendearen erdialde horretan Industri Iraultzak baldintzatu egin zuen institutuko ikasketa plana, eta argi geratu zen Nafarroako burgesiaren nahia zein zen. «Nekazari modernoak eta kontulari trebeak nahi zituzten, Iraultza Industrialaren aurrerapenak, nahiz eta berandu, ezarri ahal izateko», Herroren esanetan.

1910a, lehen emakumea sartu zen urtea • 1874. urtean, Alfonso XII.akin batera, monarkia berrezarri zen, eta Nafarroan hezkuntza pribatuak gora egin zuen. Ikastetxe erlijioso asko sortu ziren, eta Iruñeko Bigarren Hezkuntzako Institutuaren zaindartzapean bigarren hezkuntza irakasten hasi ziren.

Sorrera garaian bezala, Iruñeko eta Nafarroa osoko gizartea berriro ere astinduko zuen gertakizuna, hala ere, XX. mendearen hasieran jaso zen 1902. urteaz geroztik Nafarroako Institutu Nagusi eta Teknikoa zen hartan: lehenengo emakumea sartu zen 1910. urtean. Isabel Romero San Juan zuen izena. Institutuak emakumeak sartzea debekatzen ez bazuen ere, garai

hartako gizarteak ez zuen hezkuntza mistoa begi onez ikusten, «ikastetxe erlijiosoak egokiagoak ziren garai hartan emakumeentzat», argitu digu Guillermo Herrero. Isabel Romeroen ondotik beste hamaika emakume jarraitu zioten hark ere ikasketak bidari, batez ere II. Errepublikaren garaian.

«36ko Gerra Zibilarekin batera emakumeak bakarrik gelditu ziren institutuan», azpimarratu du Guillermo Herrero, «gizonezko guztiak gerrara joan ziren-eta». Guillermo Herrero dioenez, irakasleen artean ere sumatu zen gerraren eragina, «errepublikazale zen maisu anitz bota baitzuten». Gerra bukatzean gizonezkoak institutura itzuli ziren, baina emakumeengandik banatuta, 1939. urtean hala erabaki baitzuten agintariek. Urte horretan, beraz, 1932. urteaz geroztik Nafarroako Bigarren Hezkuntzako Institutu Nazionala zena bitan banatu zen; alde batetik Ximenez de Rada Bigarren Hezkuntzako Institutu Nazionala sortu zen gizonezkoentzat, eta bestetik Principe de Viana Institutua emakumezkoentzat.

Alde Zaharretik zabalgunera •

Gaur egungo Gurutze Plazako Institutua ez da beti izena eman dion Gurutze plazan egon. 1845. urtean sortu zenetik 1837. urtera arte Ospitaleko Kalonjearena izandako etxea izan zen institutuaren egoitza, 1837. urtean Mendizabalek martxan jarritako desamortizazioa zela-eta hutsik geratu baitzen eraikina. Lehen egoitza honek, hala ere, hamaika arazo sortarazi zizkien institutuko arduradunei, leku eza eta hotza batez ere. Hori dela eta, 1861. urtean Nafarroako Diputazioak eraikina bota eta berriro eraiki zuen. Institutuaz gain, ikasleentzako barnetegia ere

eraiki zuten, Nafarroako herrietatik ikasle anitz etortzen baitzen Iruñera. Gaur egungo Gurutze Plazako Institutuaren egoitza izandakoa ondoren Merkataritza eta Ikasletza Eskola izan zen eta gaur egun, berriz, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutua eta Hizkuntz Politikako Zuzendaritza Nagusia biltzen dira bertan.

Baina eraikin berri hori ere laster txiki gelditu zen. Gainera, 1939. urtean gizonzkoak eta emakumezkoak banatu zirenez geroztik, Principe de Viana emakumezkoen institutuak hamaika egoitza izan zituen Iruñeko hainbat ingurutan. Beraz, gizonzkoen eta emakumezkoen institutuak biltzeko ideia sortu zen. Zabalgunera garatzen ari zela aprobetxatuz, institutu berria bertan eraikitzea erabaki zuten. Gurutze plazan 1944. urtean inauguratu zuten institutuen egoitza berria. Nafarroako Institutuak izenarekin, beraz, Principe de Viana eta Ximenez de Rada bildu zituzten.

«Gure institutuak 1984. urtera arte ez zuen hasieran izandako batasuna berreskuratu» gogoratzen du Guillermo Herrero zuzendariak. 1984. urtera arte, gizonzkoek eta emakumezkoek banaturik jarraitu zuten beraz. Urte horretan berriro heziketa mistoa onartu zuten eta institutu bietan mutilek eta neskek elkarrekin ikasi ahal izan zuten berriro ere. Azkenik, joan den 1995. urtean Principe de Vianak eta Ximenez de Radak institutu bakarra osatu zuten Gurutze Plazako Institutua izenaren azpian. X



Ximenez de Rada,
historia handiko institutua

Harresiek dardar egin zutenean

iritzia

Enrike Etxarte

EZ ZEN batere xamurra izan aldaketa gaitz hura. Porlanezko horma arranditsuak dauzkan eraikin hotz hartan lehendabizikoz sartu eta zartakoa somatu nuen, bai horixe. Gurutze plazatik begiratuta, eskuin saihetseko ataria zeharkatzea egokitu zitzaidan, mutiko izaki. Ikastolako konfidantzazko eta adiskidantza giro hurbil horretatik epelik gabe leku handi eta hits hartara pasatu ginen batzuk ezinbertzean, duela ia hogeitun urte, Franco hil eta urtebetera, hain zuzen ere. Ez ginen bakarrik izan, ordea, hantxe baitzebiltzan eskola publikoetatik iritsitakoak, herrietako eskola txiki unitario haietatik heldutakoak, ikastetxe pribatuetatik kanporatutakoak eta bertze. Gehienok, beldurti, inozo, bizargabe, nora ezean eta arrotz nerbiosturik.

Lehenbiziko egunean berean gainera, bekoz beko jo gintuen alimaleko aldaketa horrek. Izan ere, ikasgela arrotz hartako aulkietan jarrita geundela, piztitzarraren itxurako gizon bat azaldu zen atetik: harbela pareraino joan, ezpainetako zigarrak lurrera botata, ederki zapaldu eta zeukan beso bakarra goratzearekin batera, hizketan hasi zitzaigun: «Ailegatu berriok, lasai zaudete, gustora eserita...», (kontxo, ba hementxe, bai, aulkian jarrita, pentsatu genuen geure artean), «ba, zutik!!!, altxatu!!!, zutitu zaitezte!!!». Txintxurra urratu ote zitzaion ez dakit, gure belarriak, behintzat, ederki lehertu zituen, geure gorputz gaxoa dardarazio betean utziz. Lekutan zeuden OHoko andereñoak, lekutan.

Matematikak ematen zituen besamotz herren haren ondotik gainontzeko katedradun adinekoak ezagutzeko parada izan genuen: zein baino zein zaharrago, jubilatutako hurren iduri, ile urdinak, makildunak, zaharriak jota zebiltzanak. Hantxe bai perla zaharrak (zaharrak ez) inon izatekotan. Felliniren *Amarcord* deitutako filmetik aterata ziruditen gizon-emakume zirmurtu haiek.

Tartean bazen gazteagorik, soinketa irakasleak, konparazio batera. Horrek ere bazuen makila, lege barrukoa, urradura eta ubeldura aunitzen sortzailea Iruñeko karraketan barenna, hots, polizi armada zen. Eta

hantxe ere, nola ez, bazen lurrerainoko kapusai beltzean bildutako giza-semerik, irri zabalaren azpitik deabru gorria izkututzen zuena, edo duena, hobe erran, *Navarra P'álante* aldizkari zuzendaria baita gaur egun.

Dallo apez hark gainera, goizeko otoitzak zuzentzen zituen, denok zutik pasillo zabalean ginen bitartean. Beti zelatan, noski, *Diosesalve*-ka hasten ez zenari zigor ederra ezartzeko. Lehenbiziko urte hartan, ordea, aire berriak sartu eta aurretik eramane zituen errezu haiek eta bertze hameka gauza konprenigaitz. Konpondu zen, esate baterako, harresiaren aferra. Izan ere, UBIn zebiltzan batzuk saiatu ziren Printzipe de Vianako nesken gainaino iristen lasterbidea hartuz, hau da, ohol handi bat eskutartean zutela patio txiki itogarrian zegoen harresia botatzeari ekion zioten. Azkenean, baimena eman zuten ikasle guztiak, neskak eta mutilak, atsedendian karrakara ateratzeko, eta, Gurutze plazako banko gorrietan baretu ziren beste sexuarekiko desioak, hein batean, behintzat.

Mugida handiko urteak izan ziren haiek, bertalde, bai karrakan, bai institutuaren barrenean, gaur egungo ikuspegitik begiratuta gezurra badi-rudi ere.

Fama Irubidek eta Ermitagañak eraman zuten, baina Ximenezen ere izan zen istilu eta mugimendu sonaturik, baita predikari gazterik ere, horietako asko ORTko seme-alabak, UJMen bilduak. Konstituzioari onespina ematerakoan den-denak desagertu ziren. Euskal Kulturaren Taldeak (EKT) eratu ziren, eta, plaza zabalean zebiltzan sigla haiek guztiak ere izan zuten euren ordezkaria, ordezkari bat, bederen, ikasleen artean. Ezin bazterrean utzi, jakina, «Errege kristoren gerrilleroak» ikasle txar-txar alferrontziak izanik Jesuitetatik egotziak.

Lau urte pasa eta partitzeko tenorea ailegatu zenean, giroa arrotz ezberdina zen. Hortik aurrera, ez dut segitu, baina nago ez ote dituzten berriro soka motzean lotu bertako irakasleak.

Beraz, hortxe dago Ximenez de Rada, betidanik izan duen *izen ona* guztiz berreskuratuta, sekulakoz. X



Orain 150 urte sortu zen Ximenez de Rada.

ARTXIBOKOA

Atzoko eta gaurko irakasleak

XIMENEZ DE RADA Institutuaren 150 urteko ibilbidean irakasle anitz eseri da bere geletako aulkietan, mutilak eta neskak batera batzuetan eta banatuta gehienetan. Nolanahi ere, 1960. urtera arte Nafarroako institutu bakarra izanik, Ximenez de Radan edo Gurutze Plazako Institutuko paretan artean ikasi dute gure herrialdeko pertsonaia ospetsu askok, hala nola Arturo Kanpion, Navarro Villoslada, Paulino Caballero, Francisco Bergamin, Florencio Ansoleaga, Juan Iturralde y Suit eta Ricardo eta Pio Baroja Nessi.

Gaur egun, 1.989 irakasle daude Gurutze Plazako Institutuan, hamabi eta hemezortzi urte bitarteko neska-mutilak. Izan ere, joan den urtean LOGSE heziketa lege berria ezarri ondoren, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan hamabi eta hamahiru urte bitarteko 300 haur baino gehiago dago gaur egun Gurutze Plazako Institutuan. Hori dela eta, UBiko 500 bat irakasle Jose Vila ikastetxean daude gaur egun, ez baitago Gurutze Plazako egoitzan denentzako lekurik. Guillermo Herrero zuzendariaren ustez, hala ere, hiru urte barru egoera bere onera itzuliko da eta 1.000 eta 1.200 irakasle inguru geldituko dira institutuaren. Irakasleei dagokienez, berriz, 148 inguru dauke Gurutze Plazako Institutuan.

Guillermo Herrero ikastetxe zuzendaria izan da azken lau urteetan baina Gurutze Plazara 1976. urtean ailegatu zen, historia garaikidea irakasteko asmoz. Egun ere, astero lau ordu besterik ez badira ere, klaseak ematen dizkie Herrero UBiko irakasleei eta aitortu digunez, zuzendari lana baino gustukoagoa du irakaslearena.

Gurutze Plazako Institutuaren 150. urteurrenari dagokionez, nostalgia da zuzendari eta irakasleak ahoan darabilen hitza. «Begirada atzera botatzea bezalakoa da urteurrenaren. Ba-

du, hala ere, kezarik ere, bere ustez gaurko irakasleek ez baitote institutuaren historia luzeari merezi duen garrantzia ematen. Hori dela eta, nahiz eta ikasleentzat propio prestatutako hainbat ekitalditan hauen partehartzea nabarmena izan, institutuaren historiari edo Nafarroako hezkuntzari buruzko hitzaldiek irakasleen interesa ez dutela piztu azaldu du Herrero zuzendariak. «Guretzat, irakasleentzat, garrantzitsua da gure ikastetxeak duen tradizioa, 150 urte asko baitira. Irakasleek, ordea, urrundik begiratzen dituzte urteurrenaren ospatzeko antolatutako ekitaldi gehienak».

Ekitaldi hauek ez dira oraindik amaitu eta datozen hilabeteotarako ere egitarau zabala prestatu dute Gurutze Plazako Institutuko arduradunek. Otsailean, hain zuzen ere, Pablo Sarasate Orkestrak kontzertua eskainiko du eta J. C. Mainer Zaragozako Unibertsitateko irakasle eta institutuaren irakasle ohiak Pio Barojari buruzko hitzaldia emanen du. Martxoan, berriz, rock kontzertua izanen da —oraindik ez dute parte hartuko duen taldearen izena zehaztu—. Otsaila eta martxoa bitartean ere, institutuaren irakasle, ikasle eta irakasle eta irakasle ohiak egindako margoen erakusketa ikusgai izanen da Iruñeko planetarioan.

150. urteurrenaren ospakizunak amaitzeko, itxiera ekitaldia egingen dute azkenik maiatzaren 15ean, arratsaldeko zazpietan, institutuaren ekitaldi aretoan. Bertan izanen dira Lola Eguren Nafarroako Parlamentuko lehendakaria, Nafarroako Unibertsitateko errektorea eta Pedro Burillo Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura kontseilaria. Ekaina edo uztaila aldera, gainera, Gurutze Plazako Institutuaren historia luzea jasotzen duen liburua argitaratuko dute bertako arduradunek. X



1980. urteko irakasle taldea, institutuaren atari nagusian.

ENRIKE ETXARTE

Xanti Begiristain

Euskadi / Euskal Herria

■ Hiztegiak eta entziklopediak pixka bat arakazten aritu garenok, oso ongi dakigu, hasira batean Euskadi eta Euskal Herria hitzak sinonimoak zirela, hau da, Sabino Aarana Goirik 1895.ean hitz hori (Euskadi) asmatu zuenean eman zion euskal nazioaren izen politikoa, Euskal Herria adierazten zuena; beraz, Euskadik euskal lurralde historiko guztiak batera adierazteko balio zuen. Gaur egun, ordea, gauzak aldatu egin dira eta kontzeptu asko erabiltzen dira, esaterako, Euskadi, Euskal Herria, Pais Vasco, Pays Basque, Frantziako Euskal Herria, Espainiako Euskal Herria, Baskongadak, Euskal Autonomi Elkarte, Foru Komunitatea, Euskal Herri Ofiziala, eta abar. Denok dakigu oso argi eta garbi Euskadi eta Euskal Herria adieren artean, egun, hagitaz interpretazio ezberdinak daukela jende askoren artean. Hortaz, garbi gelditzen da zerbait, alegia, zazpi euskal lurralde historikoak adierazteko arrunt egokia dugula Euskal Herria terminoa, eta Euskadi hitzarekin norberak nahi duena ulertzen du: «Euskadi Ta Askatasuna»; «Nafarroa Euskadi da»; «Zatoz Euskadira eta konta ezazu!»; «Euskadi Nafarroa da» eta abar.

Euskal Herriaren aurka eta Euskal Nazioaren kontra direnek, host, euskal abertzaletasuna suntsitu nahian ari direnek bikainki dakite ikasgai hori, eta horregatik erabiltzen dituzte hitz horiek (Euskadi, Euskal Herria, eta abar) txit ongi beren mesedetan eta abertzaletasunaren aurka. Esate baterako TVE, Telenavarrara, Diario de Navarra, eta abarrek (bakar batzuk baino ez aipatzearen) maisutasun handiz esaten eta idazten dituzte hauek bezalako esaldiak: «Nafarroa eta Euskadi...»; «Ruben Beloki nafarrak eta Mikel Unanue euskaldunak jokatu dute...»; «Fernando Arretxe nafarrak eta Panpi Ladutxe farntsesak galdu zuten...» eta abar, eta abar. Ni, jokaera horrek ez nau harritzen. Horrek esan nahi du, erabiltzaile horiek oso ongi dakitela zer nahi duten, zeren bila dabilzan, zer jokatzeko ari diren, eta horren guztiaren arabera oso koherenteak direla. Badakigu hemen norberak saiatu behar duela bere papera jokatzeko duintasunez eta koherentziaz. Beraz honaino, gauzak ulertzen ditut eta nahiko logikoak iruditzen zaizkit.

Horren garbi eta logikoa ikusten ez dudana beste aldean egiten dena da. Argi dezadan, beste alderdi hori aipatzean adierazi nahi ditut, batez

ere, euskal alderdi abertzale demokratikoak (beren hitzetan). Bai, jaun-andreak, nire buru gogortxoari kostatzen zaio ulertzea alderdi horiek, teoriari gutxienez, Euskal Nazio osoaren autodeterminazioa bilatzen dutenak, zergatik amorratzen diren Euskadi hitz ambiguo eta nahasgarria erabiltzen eta sustatzen beren komunikabide eta erakunde guztietatik (ETB, Euskadi Irratia, Deia, Eusko Jaurlaritza, Eusko Legebiltzarra eta abar): «Foru Komunitateko ordezkari politikoak eta Euskadikoak gaur bilduko dira...». Tankera honetako adibideak asko dira zoritxarrez (abertzaleen ikuspuntutik begiratuta) gaur egun oraindik.



Zergatik? Ba, egia esan nik oraindik ez dakit; askotan galdetu diot nere buruari eta jaso dut erantzun bat baino gehiago, baina jarraitzen dut jakin gabe zein den erantzunik egokiena: agian izan liteke Ajuria Enekoen itzuri egiten zaiela Euskadi hitza nahi gabe, edota iruditzen zaiela egoki eta argigarriagoa, edo ez dituztela kontzeptuak oso garbi, edo akaso ez dutela Euskal Herria sinesten eta apika horixe da beren joko demokratikoa. Auskalo! Denborak esango du.

Bitartean, neronek ekartzen diet Euskal Herriaren kontzeptua bere osotasunean inolako konplexurik gabe darabiltenei, esaterako, UEU, AEK, IKA, Intsumisioa, Euskaltzaindia, Egin, Egin Irratia, EGUNKARIA, Elkarrri, Euskalerrria Irratia, Ezker Abertzaleari, eta abar, eta abar. ■

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

.....

Aiko protestantearen oihartzun aizkortsuak (II): Birmingham eta beste

■ Aitzinekoan solasgai ukan Dasconaguerrek ondurikoaren espaiñerazko lehendabiziko iraultketaren arduraduna zen Birmingham jauna giltza soiletakoa zatekeen Manterolarekin batera gure izenburu korapilotsuak aipatzen duen aiko protestantearen aikoari atxekitzeko, hatz ilunak azaleratzeko, urrats isilik dastatzeko. Alta Birmingham sendiak bestelako arrazoiak ere aurkeztzen baditu zio hontara ekarria izateko. Etorkia Eiren zuten Birminghamdarrek Baionan kokatu ziren lehendabizi, Donostian geroxeago. Adituago dateke Joakin Luisen izena, Gipuzkoako hiriaren auzapeza izandakoa, egun karrika bati izena ematen diona. Bere agintaldian udaletxe berria hasi zen eraikitzen, gaur egun herri liburutegia dena, Fernando VII.aren bisitaldia zela eta. Guziarekin ere Rikardo Birmingham dugu Dasconaguerren itzultzaile trauskila eta Manterola bezala katoliko sutsua, setatsua setatsua. Bere kaskamulnek sortu zenbait lan utzi zizkigun itzulketaz gainera, 1901. urtean semea zuen Tomasek Antonio Arzak Alberdi idazle donostiarrari igorri zizkionak aipatu liburutegian gordetzeko *Herejiac euscaldunen artean* izenburu dotoreak horni. Vinsoni jarraikiz, esan genezake *elles avaient pour but de faire une propagande active contre les principes libéraux et contre la liberté des cultes accordée à la suite de la révolution du 29 septembre 1868*. Espainiako Isabel II.aren erreginatza deuseztatu zuen Joan Prim Prats eta Francisco Serrano Dominguez politikari aurrerakoen saso iraultzaileak erlijio askatasuna errazteko zenbait dekretu agertu zituen elkarte protestanteek haien foiletu proselitistak zein idazki santuen jatorrizko hizkuntzez ondu aldaera garbiak hots orripeko oharrik gabekoak banatzeko aprobetxatu zutena. Birminghamek eraso bizkarro hori aitziko neurritako ihardespina emateko asmoz, Donostiako euskaraz idatzi hainbat solasaldi asperberak kaleratu zituen, ortografia berezi xamarrez tajaturik 'S' grafiari zegokionez bederik ere, eta Gipuzkoa osoan barna doan banatu zituenak, edizio kostuei ere bere poltsikotik ordainduta aurre egin zela. Gutxienez zazpi dira ezagun ditugun izenburuak, oro 16 edo 32 orrialdeko kopurudunak, oro 8ko neurridunak, oro Baionan argira elkiak: *Mañubel eta Pachicu: herejiac euscaldunen artean, Ama Virginiaren adisquidea isango (sic) da Jaungoicoarena* —Lamaignereren moldizkiran, 1868. urtean—, *Herejiac eta beste gauza batzuben gañean: Pachicuren eta Mañubelen bigarren berriqueteta* —Lamaignere etxean, 1869. urtean— *Terescharen zualdea (sic): Pachicu, Mañubel, Terexcha, Don Pablo eta Josche Domingo alcarrequin berriquetan* —Lamaignereren moldiztegian, 1869. urtean—, *Bi ganbarac: ayec eta abec* —E. Laserrerenan, Rue orbe 30, 1869. urtean—, *Josché Miguelen ganbara* —E. Laserreren irarkolan, 1869. urtean— *Pello Mariren ganbara: arranzale isandu (sic) baten asquenecoac (sic)* —E. Laserre baitan, 1870. urtean—, eta azkenik, *Erligio eguiazcoaren siñaleac eta protestanteen liburuac iracurtzeco debeucia, tartean ejemplu batzuequin* —E. Laserreren moldetegian, 1870—.

Naski Eiretik eratorriak oro etzirela horren katoliko tematikak izan. Espainia aldean barbarako ospe handiko gizona bazuten Jose Maria Blanco White. Sevillan 1775. urteko uztailaren 11n sortu zen hura, nahiz hiri bereko San Fernando eliz kaperako magistrala izan zen, ez omen zitzaion araudi katolikoari sutsuki atxekitzen, eta ugariak baziren Andaluziako bazterretan lagaturik zeuzkan seme-alabak haatik erruz maite zituenak. Napoleonen osteek Auiak zeharkatu zituztenean, Falmoutha buruz abiatu zen Portugalgo enbaxadorearen bidaide, eta bertan eliza anglikanoaren partaide bihurtu zuen bere burua. Alabainan 1826. urtean Chamingek ondu *Kristautasunaren argitasuna*, Zulueta izeneko batek Espainiaratu zuen, idazkiaren mezu baterakoiaren irakurketak desbideraketa honi eusteko bultzatu zuen. Penintsularatu zirenen artean, ordea, zoko honetan jada aipatua dugun Borrow legoke. Beste bat William H. Rule artzain metodista izanen litzateke. *Memoir of a mission to Gibraltar and Spain with collateral notices of events favouring religious liberty and of the decline of Romish power in that country from the beginning of this century to the year 1842* izenburu argigarriko liburuaren egilea, Londonen John Masonenean 1844. urtean ageri zena. ■



Nafarroako taldekako txapelketako maila nagusira igotzeko sustapeneko partida, 1996ko urtarrilaren 14an jokatu.

J. M. Zelaia (Iruñeko San Juan 'A'), 2.215 ELOkoa — **J. M. Muruzabal** (Iruñeko Casco Viejo).

1.e4,c5; 2.Zf3,Zc6; 3.d4,d4; 4.Zd4,Zf6; 5.Zc6,b-c6; 6.Ad3,d6; 7.0-0.

Endroke honekin eta zaldiaren lehengo truke horrekin, *stzilliana* klasikotik aldendu dira txuriak.

7.....g6; 8.c4,Ag7; 9.Zc3,0-0; 10.Ad2,a5; 11.Gc1,Zd7.

Zaldiaren operazioa hasiko da, toki ona lortu arte.

12.b3,Zc5; 13.Ab1,e5; 14.Ae3,Ze6; 15.Dd2,Zd4.

16.Za4,c5; 17.Zc3,Ae6; 18.f4,f5; 19.f5,f5; 20.e5,e5; 21.cG-e1,e4; 22.Za4,Dd6. 23.Af4,De7; 24.Eh1,Ga6;

25.Ag5,Dd6; 26.Af4,De7; 27.Ag5,Dd6; 28.Ah6.

Ekite gogaikarri horretan amore eman dute.

29.Ag7,Eg7; 30.Gd1,Gh6; 31.Dg5 xa,Gg6;

32.De3,Gh6; 33.h3. Txuriek, berriz, etsi egin dute defentsan, errepikapenezko berdinketa gutxi baillitzan.

33.....Dc7. **Ikus koadroa.** Zaldiak jan behar al du peoi hori? Beltzek zerbait prestatu al dute?

34.Zc5,Zf3; 35.Gf3,f3; 36.Za6,Dg3; 37.Gg1,g2 xa;

38.Gg2,Gh3 xa; 39.Eg1,Dg2 xa; 40.Eg2,Ge3.

Beltzen sarrera bikaina izan da, aitzo baten modukoa.

41.Ef2,Gc3; 42.Zc5,Ef6; 43.Zd3,a4; 44.Ee3,b3;

45.b3,Gb3; 46.Ac2,Gc3.

Txuriek partida utzi zuten, eraso irudimentsu horren ondorioak irentsi ezinean.



Hartza Nafarroako inauterian

Hartzak leku garrantzitsua betetzen du Nafarroako folklorea, Arizkun, Ituren, Zubieta nahiz Beran

Urteko lehen elurteekin batera hartzulora jotzen du Pirinioetako hartz arreak. Nafarroako hainbat herritan, ordea, kalera ateratzen da hartza Kandelaria egunean, otsailaren 2an. Izan ere, hartzak leku garrantzitsua betetzen du Nafarroako zenbait herritako folklorea, Arizkun, Ituren, Zubieta edo Beran esaterako.

Fernando Hualde / Iruñea

AZAROA bukatzeaz dagoenean, edo abenduan urteko lehendabiziko elurte handiak aurrikusten direnean, Pirinioetako hartz arreak hartzulora jotzen du negua bertan emateko. Horretarako, lehenago gordeleku bat egin du gizakia igaro ohi ez den mendiko leku lasairen batean; edo, besterik gabe, haitzulo naturalen bat erabili du, elurrak geroago estaliko dituen adarrekin kamuflatu sarrera. Nahita tamaina txikiak den egonleku horretan, hartza neguko letargia moduko batean murgiltzen da. Gorputzaren tenperatura 3 gradutik 5era bitarte jaisten da; bihotz eta arnasketa erritmoak ere jaisten dira, eta hestea, elikagairik hartzen ez duenez, itxita gelditzen da.

Hala ere, loa ez da sakona; gauza da kanpoaldean gertatzen diren tenperatura aldaketak antzemateko, edo ihes egiteko gizakiak molestatzeko badu.

Honaino, Pirinioetan urtero izaten diren natur gertakari miragarrietako baten deskripzioa. Abendutik apirilera arte, ohiko energia kontsumoaren % 75a aurreztuz irauten du bizirik hartzak, eta horretarako udazkenean zehar konkorrean pilatu dituen koipe erreserbak erabiltzen ditu.

Kandelaria egunean ilargia ikustera ateratzen ei da

hartza • Kondairak, kasu batzuetan, edo herriaren sinesmenek, bestetzetan, neguko letargian oinarrituta, esaten digute hartza urtero, otsailaren 2an, Kandelaria egunean, hartzulotik kanpora agertzen dela ilargia ikusteko, eta egiten dituen behaketa klimatologiko eta astronomikoen arabera, ilargi egutegia eta eguzki egutegia bateratu egiten dituela. Plantigradoak ikusten badu ilargi bete dagoela, interpretatuko du neguak gutxienez berrogei egun gehiago iraungo duela. Horren ondorio da hartz arreak gaur egun oraindik funtsezko eginkizuna izatea Nafarroako inauterian, nahiz eta, zoritxarrez, gure probintzian desagertzeaz dagoen animalia izan.

Inguruetakoez badakite hartza letargiatik ateratzeak udaberriaren hurbiltasuna adierazten duela; horrela, bada, biziaren sinbolotzat hartzen dute, hau da, hartza heriotzaren ondoko berpizkundea da. Hartza Pirinioetako inauteri batzuetan agertzea udaberriaren etorrera azkartzeko gehiegizko irrikaren ondorio da, eta, horretarako, batere zalan-zarik ez dute sinbolikoki letargiatik ateratzeko.

Nafarroako iparraldeko herri batzuetan, baita Pirinioetako bestetzetan ere, hartzak leku garrantzitsua betetzen du tokian tokiko folklorea. Ardiak eta ahuntzak irensten dituen ani-


malia izugarri gisa arbasoek hartzaz eman diguten irudia gorra-behera, espezie honen errealtate biologikoa herri-tradizioetan nagusitu da, eta, horregatik, egun, hartz arrea herrixka, zelai eta etxabereen babeslea da. Are gehiago, Erronkariko Pirinioan aurkitutako zeramikazko hainbat piezatan hartz baten buruko larruarekin estaliriko gizon bizartsu baten burua agertzen da. Bada, ziur aski, pieza horiek beste garai batzuetan eguzki lorearekin lehiatuko ziren borde-tako ateetan paratuta, geroago Jesusen Bihotzaren irudiarekin edo Andre Mariaren izenpean jarritako beste batzuekin gertatuko zen bezala. Borda eta inguruko lurrak sorginkeria posibleetatik babesteko eginkizuna beteko zuten. Garai paganoetan hartzarekiko kultuak bazuen egun bat, otsailaren 3a, egungo San Blas jaieguna hain zuzen ere.

Francisco Javier Tiberio iker-tzaileak *Carnavales de Navarra* obran herri-sinesmenaren interpretazio hau egin du: «...hartzak hildakoen arimak daramatza sabelean eta, horregatik, arimen eta ehizaren jauntzat hartzen dute. Bestalde, inkontzientearen alderdi erlijiosoa sinbolizatzen du eta, batzuetan, baita haragikeriarena, hirarena eta gularena ere. Ilargiarekiko sinbolismoa-gatik amatasunari eta emetasunari lotutako ezaugarriak egozten dizkiote...».

Ituren eta Zubietak hartz bana dute • Batez ere XVIII. eta XIX. mendeetan, Pirinioetako bi aldeetako herrietan askotan izaten zituzten *oussaté*-en edo hartzazainen bisitak. Pertsonaia hauek, askotan ijito etniakoak, herririk herri ibiltzen ziren, eta propio hezitako hartz batek zekizkien aibileziak erakusten zituzten. Hain zuzen ere, zirku-estampa zahar hau geratu da Pirinioetako hainbat inauteriren ezaugarri gisa. Besteak beste, Nafarroako bi herritan, Ituren eta Zubietan, hala gertatu da.

Bi herriotako mutil gazteek aukeratzen dute inauteri entzutsua egiteko data, baina baldintza hau jarrita: Epifaniatik Kinkuagesimako Igandearen ondoko asteartera bitarteko aste bateko astelehenean eta asteartean egitea.

Aratuste hauetako pertsonaia nagusia joalduna edo zanpantzarra da. Hauek gerriaren atzealdeko joareei eraginez eta herri batetik bestera taldeka desfile zaratatsua eginez, beren



Erronkarin sorginak uxatzeko erabiltzen zuten mozorroa.

F. HUALDE



Herri askotako inauterietako protagonista da hartza.

ARTXIBOKOA

inauteriei egungo sona eman diete.

Baina Iturengo eta Zubietako zanpantzarrak osagabe geratuko lirake, herri ospeak bigarren mailan utzi dituen beste pertsonaia batzuen partaidetza izango

ez balute. Hori da hartz onkotearen kasua: hartzazaina beti alboan duela, urtero jaisten da mendietatik inauteriaz gozatuko. Malerreka eskualdeko bi herrietan esaten dute hartzaren presentziak zorte ona iragartzen duela, eta laster elur asko izanen dela, udako ur arazoa konponduta utziz.

Arizkongo hartza • Baztan aldeko Arizkun herrian inauteri errural politenetako bat egiten da. Zorionez, ekitaldi horrek al-daketa garrantzitsurik izan gabe

iraun ahal izan du gaur egun arte. Arizkondarrek ardura handiz zaindu eta babestu dute beren inauteria eta, horri esker, Nafarroako iparraldeko antzeko ospakizunetan gertatzen ari den masifikaziotik libratu dute.

Ituren eta Zubietan ez bezala, hemen hartza da pertsonaiarik garrantzitsuen. Sagar-dantzaren sintonia entzuten dela, Inauteriko asteartean herriko kaleak zeharkatzen ditu hartzak, ahari larruz estalita eta hartzazainak daraman katean lotuta. Askotan lortzen du zaintzailearengandik ihes egitea, eta lasterka bizian ari dela, aurretik eramaten dituen bidean agertzen zaizkien guztiak. Hartzak beste zenbait pertsonaia ditu lagun, mamuak, mozorro bestituak edo atso makurtuak, esaterako.

30eko hamarkadara arte, hartza Bozate auzoko gazteekin batera ibiltzen zen eskean Arizkongo etxeetatik. Hala ere, egun, Bozateko hartz hura mailaz igo egin da, eta ibilbidea herriaren erditik bertatik hasten du, ikuslearen arreta bereganatzea beste helbururik ez duela.

Zenbait ikertzailek diotenez, abereak plantigradoen erasoetatik babesteko aspaldi egiten ziren errito magikoetan du jatorri Arizkongo inauterian hartza agertzeko ohiturak. Francisco Javier Tiberio, lehen aipatu dugun liburuan, adierazi du kondairak azaltzen duela zergatik agertzen den hartza Arizkongo aratustean, eta, orobat, kontatzen du behin batean hartz bat jaitsi zela herrira, eta bertakoak hartzez mozorrotu zirela uxatzeko. Beste hipotesi baten arabera, ijito batzuei ihes egin zien hartz bat gogorarazten du pertsonaia horrek.

Bera eta Iruñeko kauterak • *Baila oso Margarito, baila oso a Nicolas, a Nicolas de la Rusia*. Aspaldian, lelo hori abesten zuten kauteren —kalderoen— jaietan, hartza —oso— dantzazartzen —baila— zuten bitartean —Errusiako Nikolasen omenez—. Hartza, beti kateatuta daramatena, betidanik pertsonaia nagusiakoa izan da jai magiar honetan, zein, aspalditik, Beran ezin hobeto uztartu baita herri tradizioarekin.

Horrela, bada, urtero, inauterian sarrera gisa, hungariar or-gak iristen dira Berara, urrutiko estepetako kauterek gidatuak, eta hauek beren edabe sorginduekin eta ronarekin dantza egitera gonbidatzen gaituzte. Juglarea, pitonisa ederrak, akrobatak eta hartza partaide dira magiar bikote baten ezkontza zoriontsua ospatzen duen eszenifikazio bitxi horretan.

Iruñeak, 1993 urteaz geroztik, bat egin du, Iruñeko Kauteren Elkartearen bitartez, ron errea, lapikoen zalaparta, fanfarreak eta gaiteroak batzen dituen zurrunbilo horrekin, eta, bidena-bar, hartz gatibua ere hasi da toki bat lortzen tradizio bihurtu nahi duen herri ekinza horretan. X

Inguruetakoez badakite hartza letargiatik ateratzeak udaberriaren hurbiltasuna adierazten duela; horrela, bada, biziaren sinbolotzat hartzen dute, hau da, hartza heriotzaren ondoko berpizkundea da

* ◆ Inozentzio Aierbe ◆ Apeza

«Lehenagoko debozioa galdu egin da»

Arakil-Uhartan orain dela 83 urte jaioa, Aralarko santutegiko apeza izan da azken 50 urteetan Inozentzio Aierbe. Bertako elizmutila izan zen lehen-dabiziko eta apez izendatu zutenean, berak eskatuta bidali zuten Aralarra. Orain dela 50 urte hartutako erabakiaz ez da inoiz damutu eta santutegia ikustera hurbiltzen diren bisitari guztien artean pozik bizi dela aitortu digu.

Edurne Elizondo / Iruñea

ARALARKO santutegia beste inork baino hobeto ezagutzen du Inozentzio Aierbe Arakil-Uharteko apezak, bertan eman baititu azken 50 urteak. «Lagun on asko egin ditut hemen eta inoiz ez dut alde egiteko gogoia sentitu» azpimarratzen du. Hala ere, ez dira gaurkoak betiko garaiak eta Aralarko egungo bisitariek lehenagokoen debozioa galdu dutela us-te du Inozentzio Aierbek.

■ 50 urte Aralarko santutegian. Zer-nolako urteak izan dira?

50 urtetan denetarik bizi izan dut, gauza onak eta txarrak, batez ere ni etorri nintzenean ostaturik ez zegoelako. Ni ailegatu baino bi urte lehenago, ostatua erre egin zen. Orduan, Aralarra joaten zen jendea hartzeko tokirik ez nuen eta nik asko sufritzen nuen, jendea etorri eta ostaturik ezin eman, horrek asko penatzen ninduen. Baina gogor borrokatu eta lortu nuen ostatu berria. Orain jendea pozik joaten da eta nik zer eskaini ere badut. Hori garrantzitsua da neretzat, bihotzez eskertzen baitut hona datorren edonoren bisita.

■ Gauza onik ere eman dizu Aralarri. Zer nabarmenduko zere?


Neretzat garrantzitsuena jendea onik izan ditudan hartu-

emanak izan dira, inolako zalantzarik gabe. Adiskide berri on asko egin izan ditut urte hauetan guztietan, oso jende ona baita hona etortzen dena. Pentsa ezazu, urtean zehar hainbeste jende hurbiltzen da Aralarra... ezinezkoa da horien guztien artean lagunik ez aurkitzea. Eta nik asko aurkitu ditut, zorionez. Udaberrian eta batez ere udan etortzen da jende gehien. Gaur egun jende gehiago etortzen da baina beste gauza da. Lehen, oinez etortzen ziren guztiak eta ematen zitzaiena asko estimatzen zuten, poz-pozik joaten ziren hemendik.

■ Gaur egun ez da, beraz, berdin gertatzen?

«Aralarrera iritsi nintzenean ez zegoen ostaturik, ni ailegatu baino bi urte lehenago erre baitzen. Horrek asko sufriarazten zidan»

50 urte darama Inozentzio Aierbek Aralarren. ARTXIBOKOA



Gaur egun jende gehiago etortzen da baina lehen etortzen zen jendearen debozioa ez dute gaurkoek. Jendea turismo egitera etortzen da, gehienbat, baina ez debozioak bultzatuta, lehen bezala. Gazteengan somatzen dut, batez ere, debozio falta hori, zaharrenek oraindik eutsi egiten baitiote. Lehenagoko ohiturak gustokoago nituen baina gaur egun etortzen diren bisitariekin ere ongi konpontzen naiz, gustora hartzen ditut guztiak Aralarren.

■ 50 urte hauetan ez duzu inoiz Aralartik beste nonbaitera joateko gogoia izan?

Ez, ez. Ni Aralarra nahi nuelako etorri nintzen. Haur nintzelarik elizmutila izan nintzen Aralarren eta asko maite nuen toki hau. Horregatik apez izendatu nindutenean, apezpiku jaunari esan nion Aralarra pozik etorriko nintzela, ahal izanez gero. Aukera izan nuen eta ez nion ihes egiten utzi. Honela iritsi nintzen

hona eta pozik egon naiz urte hauetan guztietan. Egia erran, inoiz ez dut beste inora joateko gogorik sentitu, Aralarren aurkitu dut nahi nuen guztia. Eta gazte garaian beste nonbaitera alde egin ez banuen, are gutxiago orain, zahartuta nagoela.

■ Aralarko santutegi berezia da, tradizio handikoa.

Zalantzarik gabe, Euskal Herriaren debozio handiko santua izan da beti San Miguel. San Miguelek Aralar utzi eta Nafarroako herrietan barrena ibiltzen denean ere nabarmena da debozio hori. Gaur egun ez da gauza bera, aldaketa somatu da hor ere. Lehen herri batetik bestera joateko oinez joaten zen jendea San Miguel laguntzen. Herrian sartu eta herriatik ateratzen zenean, San Miguelen ondoan oinez joaten zen mundu guztia. Jai egun handia zen lehen San Miguel etortzen zenekoa. Gaur egun, ordea, ez hainbeste. Gaur egun, elizatik elizara

s o s l a i a

Inozentzio Aierbe orain dela 83 urte jalo zen Arakil-Uhartan. Gaztetandik harreman estua izan du Aralarko santutegiarekin, haur bat besterik ez zela bertako elizmutila izan baitzen. «Asko maite nuen Aralar eta bertara joan nahi nuen apez» azaldu du.

Bere nahia egia bihurtu zen apez izendatu zutenean. Aralarra joan nahi zuela erran zion apezpikuari eta harek emandako aukerari ez zion ihes egiten utzi. Aralarren, hala ere, ez da inoiz bakarrik egon, Euskal Herri osoko bisitariak izan baititu ondoan beti. «Gaur lehen baino jende gehiago joaten da baina gaurko bisitariek lehenagokoen debozioa galdu dute», adierazi digu.

Aralarko santutegia, hala ere, noizbehinka uzten du Inozentzio Aierbek. joan den asteburuan bezalaxe. Txapelzaleen Elkarrekin gonbidatuta, Altsasun ospatu zuten jaietan izan zen eta bertan izendatu zuten elkarteko kide berri, Jose Maria Satrustegirekin batera.

eramaten dute baina oinez egiten zen ibilbide hori galdu egin da. Noski, askoz errazagoa da gaur egun baina lehenagokoak bazuen egungoak ez duen goxotasuna.

■ Gipuzkoa eta Nafarroatik hurbiltzen da jende gehien Aralarra. Norena da gehiago, gipuzkoar edo nafarrena?

Hortxe-hortxe ibiliko dira. Herrialde bietatik etortzen da jende asko eta neretzat denak dira berdinak. Ni, gainera, nafarra naiz baina aita zena gipuzkoarra nuen, beraz Gipuzkoa ere asko maite dut, erdi gipuzkoarra ere bainaiz. Aralar batzuen edo besteena den ezingo nuke nik esan, denak dira berdinak eta denena da ere Aralar. Aralarren elkarrekin izaten dira denak, beraz, ezinezkoa zait batzuen edo besteena den erratea, edo batzuen edo besteena alde egitea.

P A N E LUCRANDO

ZALDI EROA

